

AINHOA LETE ZABALETA andreak, Bergarako Udaleko behin behineko alkatea, Udalaren izenean eta Udala ordezkatzuz.

JAVIER INDA ALTUNA jaunak, "Ibai-Arte" Arrasate Merkatal eta Zerbitzuen Elkartearen lehendakariak, erakunde horren izenean eta erakundea ordezkatzuz.

Batak besteari hitzarmen hau izenpetzeko gaitasuna duela aitortuz:

HAU ADIERAZI DUTE:

1. Debagoienean Merkataritzako Bulego Teknikoa izatearen garrantzia, Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza enpresei aholkularitza ematen dien aktiboa izanik.
2. 2022ko uztailaren 19ko Agindua ezagutzen dutela, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendurako 2022ko eta 2023ko ekitaldietarako laguntza-programa arautzen eta iragartzen duena (MBT 2022-2023).
3. Merkataritza Teknikoko Bulegoak beraien oinarriak Eusko Jaurlaritzako Merkataritzako Plan Zuzendaritik hartzen dituela. Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailak bulegoek garatu beharreko zereginak jasotzen dituela eta agindu arautzailean ere jasotzen direla ondorengoak izanik: "bulegoek merkataritzako banaketan espezializatuta egon behar dute, zerbitzuak doan eman behar dituzte (saltoki elkartuei eta elkartu gabeei) eta haien jarduerak hiriko merkataritza-ekonomia sustatzea izan behar dute helburu. Horretarako, helburu hauek izan beharko dituzte: berrikuntzarekin, kalitate-prozesuekin eta teknologia berriekin lotutako prozesuen inguruko sentsibilizazioa eta zabalkundea; lankidetzaren horizontaleko (hiri-eremuetan) eta bertikaleko (banaketa-katean) lankidetzaren prozesuen sustapena; emakumeen eta gizonen arteko aukeraberintasunaren sustapena; enpresa-transmisioko eta ikaskuntzako prozesuen jarraipena eta sustapena; ondarea, kultura eta

ingurumena iraunarazteko ekonomia bati lotutako estrategien garapena; hirugarren sektoreko estrategien sustapena udal- nahiz eskualde-mailan; eta kontsumitzaileentzako balio erantsia sortzen duten ekintzen garapena, xede-publikoaren fideltasuna lortzeko.”

HITZARTZEN DUTE:


- A. “Ibai-Arte” Arrasate Merkatal eta Zerbitzuen Elkarteak, 2022ko uztailaren 19ko AGINDUAN jasota dagoen bezala 23. gunerako (Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza, Oñati) Merkataritzako Bulego Teknikoa eska dezala.
- B. Bergarako Udalak, Ibai-Arte aurkeztutako Merkataritzako Bulego Teknikoaren eskaria babesten duela eta bulegoarekin lan egingo duela merkataritza sektorerako onuragarri diren laguntza eta proiektuetan.

Klausulek ezarritakoarekin ados daudela frogatzeko, agertutakoek hiru aletan izenpetu dute agiria

Bergaran, 2022ko irailaren 13an



Ainhoa Lete Zabaleta izenpetua
Bergarako Udala



Javier Inda Altunak izenpetua
IBAI-ARTE Merkataritza Elkarteak